

# PRESENTACIÓN DE PROYECTOS Y ACTIVIDADES

## PROGRAMA

Ostirala, azaroak 16  
Viernes, 16 de noviembre

11:00 **AUKEZPENA**  
Joxean Muñoz (Eusko Jaurlaritza), Fernando Pérez (Azkuna Zentroa), Iñaki Imaz, Maider López eta Leire Vergara (eremuak-eko komisio teknikoa).

### PRESENTACIÓN

Joxean Muñoz (Gobierno Vasco), Fernando Pérez (Azkuna Zentroa), Iñaki Imaz, Maider López y Leire Vergara (Comisión técnica de eremuak).

11:15 Julen Agirre

12:00 José Otero

12:45 **EREMUAK#5**

Aldizkariaren aurkezpena | Presentación de la revista

13:15 Residencias | Egonaldiak

Leo Burge (Halfhouse), Damaris Pan (Art Omi)

16:30 **HARRIAK 2018 Mahi-ingurua** | Mesa redonda  
Parteharzaileak | Participantes:  
Dani Mera, Maia Villot, Okela, Raúl Domínguez  
Moderatzailea | Moderadora: Garazi Ansa

17:30 Andreas Wutz

18:15 Atsedena | Descanso

18:45 Mutur Beltz

19:30 Itziar Bilbao

20:20 Héctor Rey

www.eremuak.net/eu  
www.eremuak.net/es

Aurtengo jardunaldien helburua da eremuak programaren deialdi irekiaren bidez babestutako proiektuetako batzuk aurkeztea. Bi helburu ditu ekimenak: bideratutako proposamenen aniztasuna ezagutaraztea eta ekoizpen artistiko garaikidearen edizioan, interpretazioan eta ekoizpenean sakontzea, sortzaileen esperientzietan oinarrituta. 2018an egindako beste jarduera batzuk ere aurkeztuko ditugu, hala nola: eremuak aldizkariaren 5. zenbakia eta HARRIAK izeneko erakusketa-programa, EAEko hainbat kultura-etxetako aretoetan ikusgai dagoena.

Las jornadas de este año están dedicadas a la presentación de algunos de los proyectos apoyados a través de la convocatoria abierta del programa eremuak. Con esta iniciativa queremos hacer visible la diversidad de propuestas impulsadas y ahondar en la edición, interpretación y producción artística contemporánea a través de las experiencias de sus creadores y creadoras. Dentro de este marco se presentan igualmente otras actividades realizadas en 2018 como son el n.º 5 de la revista eremuak y el programa de exposiciones HARRIAK, visible en diversas salas de casas de cultura de la CAV.

2018ko azaroaren 16ean, ostirala, eta 17an, larunbata  
Viernes 16 y sábado 17 de noviembre de 2018

# PROIEKTU ETA JARDUEREN AURKEZPENA 2018 EREMUAK JARDUNALDIAK JORNADAS EREMUAK 2018

Larunbata, azaroak 17  
Sábado, 17 de noviembre

11:00 Dani Llaría  
11:45 David Cívico  
12:30 Tamara García, Izibene Oñederra  
13:15 Elba Martínez

eremuak  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Az  
Azkuna Zentroa  
AlhóndigaBilbao

Azkuna Zentroa

JOZ2 aretoa  
Jarduera Osagarrien Zentroa 2

sala CAC2  
Centro de Actividades Complementarias 2

## ANDREAS WUTZ

Pinturan eta instalazio artistikoetan graduatu zen, eta ordutik argazkilaritzan, multimedia-instalazioetan eta zineman aritu izan da lanean batez ere. Hiri- eta natura-paisaien historia eta memoria mediatikoaren inguruko galderak ikertzen ditu, bai eta eguneroko egoeren garrantzi politiko-soziala eta historikoa ere. Graduado en pintura e instalación artística, se ha centrado posteriormente en la fotografía, la instalación multimedia y el cine. Investiga las preguntas de la historia y la memoria mediática de los paisajes urbanos y naturales, así como la relevancia político-social e histórica de situaciones cotidianas.

## DAMARIS PAN

Arte Ederrak ikasi zituen EHUn eta Berlingo KHB unibertsitatean. 2014an defendatu zuen doktorego-tesia, eta gaur egun EHUko Pintura Saileko irakasle dihardu. Artea ekoizten du oro har, eta pintura bereziki.

Estudios de Bellas Artes en la EHU/UPV y en la KHB de Berlín. En 2014 defendió su tesis doctoral y actualmente trabaja como profesora en el Departamento de Pintura de la UPV. Su material de producción es el arte en general y la pintura en particular.

## DANI LLARÍA

Ikusmen-artista da. Arte Ederretako lizentzia atera zuen EHUn, eta master-ikasketak egin zituen Parsons-en (New Yorken), Fullbright bekadun gisa. 2017an, Estatu Batuetako Skowhegan egoitza entzutetsuan hartu zuen parte. Gaur egun, Anguianon (Errioxan) eta Bilbon bizi da eta egiten du lan.

Es artista visual. Licenciado en Bellas Artes por la UPV/EHU, realizó estudios de máster en Parsons (Nueva York) como becario Fulbright. En 2017 participó en la prestigiosa residencia Skowhegan, Estados Unidos. En la actualidad vive y trabaja entre Anguiano (La Rioja) y Bilbao.

## DANI MERA

Artista eta esploratzailea da. Arte Ederretako lizentzia atera zuen EHUn (2009an) eta Ikusmen Arteetako masterra egin zuen Londresen (Chelsea Collegen, 2012an). Bideoa eta argazkia erabiltzen ditu, bere laneko ekintzak erregistratzeko tresna gisa. Irudia eta mugimendua arakitzen ditu, kontakizuna sortzeko gaitasun teknikoa dutelakoan.

Artista-explorador. Licenciado en Bellas Artes (UPV/EHU, 2009) y máster en Visual Arts (Chelsea College, Londres, 2012). Utiliza el vídeo y la fotografía como herramientas para el registro de las acciones que realiza en su trabajo. Explora la imagen-movimiento en su capacidad técnica para generar narrativa.

## DAVID CÍVICO

Hainbat baliabide eta formatutan gauzatutako proiektuetara bideratzen du bere arte-jarduera. Banakako zein taldekako erakusketak egin ditu, bai eta edizio mugatuak, kontzertuak, proiektzioak eta haur-antzerkia ere. 2005az geroztik, bere proiektuak eta beste batzuenak ekoizten ditu 5x8 elkartearen bidez.

Su actividad artística se centra en proyectos desplegados en diversos medios y formatos. Su obra se ha expuesto de manera individual y colectiva, y también ha realizado ediciones limitadas, conciertos, proyecciones o teatro infantil. Desde 2005 produce proyectos propios y ajenos desde la asociación 5X8.

## ELBA MARTÍNEZ

Dublingo National College of Art and Desingen atera zuen lizentzia. 2009az geroztik, irakaslea da Kunsthal eskolan. Talde-erakusketa hauetan hartu du parte: *70´setentas* (2003an), *No somos nadie* (2005ean), *La ilusión del Pirata* (2006an), *Erreakzioa* (2011n), *Una imagen brutal* (2014an) eta, berrikiago, *Yo, la peor de todas* (Oteiza Fundazioan, 2017-2018an) eta *La Beauté du monde* (Crypte Sainte-Eugénien, Biarritzen, 2018an). Licenciada por el National College of Art and Design de Dublín. Desde 2009 profesora en Kunsthal. Ha participado en las exposiciones colectivas *70´setentas* (2003), *No somos nadie* (2005), *La ilusión del pirata* (2006), *Erreakzioa* (2011) y *Una imagen brutal* (2014), y más recientemente en las colectivas *Yo, la peor de todas* (Fundacion Oteiza, 2017-2018) y *La Beauté du monde* (Crypte Sainte-Eugénie, Biarritz, 2018).

## GARAZI ANSA

Artearen Historian lizentziaduna da EHUn, eta masterra egin du Baliabide Berrietako Arte Komisariotzan Ramon Llull-ESDIn. Arte-komisarioa eta -kritikaria ez ezik, EHUko Artearen Historia graduko irakaslea ere bada. Gaur egun, komisariotza-jarduerari buruzko doktoregoa ari da egiten.

Licenciada en Historia del Arte (UPV/EHU) y máster en Comisariado de Arte en Nuevos Medios (Ramon Llull-ESDI). Compagina el comisariado y la crítica de arte con la docencia en el grado en Historia del Arte (UPV/EHU). Realiza actualmente un doctorado sobre la práctica comisarial.

## HÉCTOR REY

Artista plastikoa, konpositorea eta interpretea da. Estatu Batuetako, Finlandiako eta Espainiako arte-espazioetan erakutsi du bere lana: SVAn, Atski galerian, Montehermoso Kulturunean, Windsor Kulturgintzan. Egonaldi-bekak irabazi ditu besteak beste Aalto Unibersityn (Helsinki) eta egoitza artistikoak Islandian eta New Yorken.

Artista plástico, compositor e intérprete. Ha mostrado su trabajo en espacios de arte de Estados Unidos, Finlandia y España (SVA, Galleria Atski, Montehermoso Kulturunea, Windsor Kulturgintza). Galardonado con becas de estancia en instituciones como la Aalto University (Helsinki) y residencias artísticas en Islandia o Nueva York.

## ITZIAR BILBAO URRUTIA

Londresen du bizilekua eta lantokia, 1996az geroztik. Artearen zirkuitutik kanpo, Londoneko hiri-azpikulturetan kokatzen du bere lana. Interpretea, ekoizlea eta editorea da Itziar, eta feminizatatzat eta pornografotzat du bere burua. Horiek dira The Urban Chick Supremacy Cell izeneko bere web-orrialdearen oinarriak, Valerie Solanas-en *SCUM* manifestuak inspiraturiko eduki fetixista duenak. Vive y trabaja en Londres desde 1996. Fuera del circuito del arte, establece su trabajo en las subculturas urbanas londinenses. Performer, productora y editora, se define como feminista y pornógrafa, bases de The Urban Chick Supremacy Cell, su página web de contenido fetichista inspirado por el *Manifiesto SCUM* de Valerie Solanas.

## IZIBENE OÑEDERRA

Arte Ederren Fakultateko irakaslea da EHUn, bai eta animatzailea ere. Marrazkia oinarri duten haren animazioko film laburrak nazioartean erakutsi dira, eta hainbat sari lortu dituzte.

Animazioko film labor kolektiboetan kolaboratu izan du, eta MAPA ikus-entzunezko proiektuko kidea da. Egun, *Lursaguak*. *Escenas de vida bajo tierra* filma ari da amaizten.

Profesora en la Facultad de Bellas Artes (UPV/EHU) y animadora. Sus cortometrajes de animación con dibujos, exhibidos internacionalmente, han cosechado diversos premios. Colaboradora en cortometrajes colectivos de animación, es miembro del proyecto audiovisual MAPA. Actualmente concluye el film titulado *Lursaguak*. *Escenas de vida bajo tierra*.

## JOSÉ OTERO

Hizkuntzaren eta gorputzaren arteko harremana ikertzen du, jardun pedagogikoan eta artearen ikerketan oinarrituz. Paisaiaren ideia landu du, ibiltzea proiektatzeko eta esku hartzeko baliabide gisa hartuta. Gaur egun, eskolako gorputz-hezkuntzari heldu dio, arte-esperimentaziorako eremua delakoan.

Investiga las relaciones entre lenguaje y cuerpo a través de la práctica pedagógica y la investigación artística. Ha trabajado la idea de paisaje basándose en el caminar como medio de proyección e intervención. En la actualidad está abordando la educación física escolar como campo de experimentación artística.

## JULEN AGIRRE EGIBAR

Arte Ederretan doktorea da, bai eta artista ere. Arte garaikidearen kezken inguruan ikertzen du, hainbat diziplina ukituz. Jarduera artistikoa marrazkiaren bueltan garatzen du nagusiki, nahiz eta beste diziplina batzuk ere lantzen dituen. Azken urteotan, erakusketa kolektibo zein bakarkakoetan hartu du parte. Doctor en Bellas Artes y artista, centra su investigación en las preocupaciones del arte contemporáneo, ámbito que transita desde diferentes disciplinas. Desarrolla su práctica artística principalmente en el dibujo, aunque también cultiva otras disciplinas. En los últimos años ha participado tanto en exposiciones individuales como colectivas.

## LEO BURGE

Bilbon bizi da 2003tik. EHUko Arte Ederren Fakultatean eta Holandako KABKn (Hagan) ikasi zuen, eta azken horretan hasi zen eskulturari erreparatzen. 2015ean, Kalostra lantegian hartu zuen parte. Reside en Bilbao desde 2003. Realizó sus estudios en la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU y en la KABK (La Haya, Holanda), donde comenzó a interesarse por la escultura. En 2015 participó en el taller de Kalostra.

## MAIA VILLOT

Artista, liburu-saltzailea eta komisarioa da, eta Bilbon bizi da. Arte Ederrak ikasi zituen EHUn (eskulturaren espezialitatean), eta hantxe hasi zen arte eszenikoetan trebatzen: antzerkian, dantzan, koreografian eta interpretazioan. 2004az geroztik, beste artista batzuekin batera dihardu hainbat performancetan, eta gaur egun, *La Cosa en Casa* topaketa antolatzen du Isaak Erdoziarekin batera. Topaketa horretan, hainbat diziplinatako artistek etxeko testuinguruetan erakusten dituzte euren lanak. Artista, librera y comisaria, vive en Bilbao. Estudió Bellas Artes en la UPV/EHU (especialidad de escultura), donde comenzó a formarse en artes escénicas (teatro, danza, coreografía y performance). Desde 2004 colabora con otros artistas en performances y actualmente organiza con Isaak Erdoiza *La Cosa en Casa*, encuentro donde artistas de distintas disciplinas muestran su trabajo en contextos domésticos.

## MUTUR BELTZ

Elkarte agroekologiko, artistiko eta kultural bat da, desagertzeko arriskuan dagoen Karrantzako ardia sustatzeko helburua duena. Ekimen horren bidez, artzainaren lanbideak bizi duen jakintza-galerari erantzun nahi zaio, artearen, abeltzaintzaren, artisautzaren eta turismoaren esparruari lotutako hainbat jardueraren bidez.

Mutur Beltz es una asociación agroecológica, artística y cultural para la promoción de la oveja carranzana de Bizkaia, una especie en peligro de extinción. La iniciativa trata de responder a la pérdida de saberes del oficio de pastor/a con múltiples actividades relacionadas tanto con el mundo del arte como con la ganadería, la artesanía o el turismo.

## OKELA

Artistek sortu eta kudeatutako irabazi-asmorik gabeko gunea da. 2014an sortu zen hainbat helbururekin: Euskal Herriko arte garaikidearen testuingurua aktibatzea, artista plastiko eta bisualen artean zeharkako harremanak sortzea, dauden hutsuneak identifikatzea eta egiteko beste modu batzuk bilatzea. Gaur egun, izaro Ieregi, Irati Urrestarazu eta Sahatsa Jauregi dira kudeatzaileak, bidelagun dituzten artista konplize, kolaboratzaile eta okelatarrekin batera.

Espacio sin ánimo de lucro, creado y gestionado por artistas. Nació en 2014 con el objetivo de activar el contexto del arte contemporáneo en Euskal Herria, establecer relaciones transversales entre artistas plásticos y visuales, identificar los vacíos existentes y generar otras formas de hacer. Actualmente está gestionado por izaro Ieregi, Irati Urrestarazu y Sahatsa Jauregi, junto con los/las artistas cómplices, colaboradoras y okelattarras que sustentan el proyecto.

## RAÚL DOMÍNGUEZ

Marrazkia lantzen du soilik, eta denbora asko zeraman liburu bat idazteaz pentsatzen. Egindako bilaketa zehatzaren eta adierazpen-modu ezberdinetan sakontzearen ondorioz, aurkezten dizkigun marrazkiek sorburutik bertatik daramate erreproduzitzeko gaitasuna. Aukeratutako gaietan, maitasun-harremanak eta lekuak dira nagusi. Trabaja únicamente con el dibujo y desde hacía tiempo maduraba la realización de un libro. Fruto de una exhaustiva búsqueda y profundización en diferentes maneras de representación, los dibujos que presenta contemplan la reproductibilidad ya desde su concepción. En los temas elegidos predominan las relaciones amorosas y los lugares.

## TAMARA GARCÍA IGLESIAS

Bideo-egilea eta kuradore independentea da. Aguilar de Campoko Film Laburren Nazioarteko Jaialdiko zuzendaria izan da 5 urtez, eta kuradorea hainbat erakusketatan: *This is Just to Say* eta *Mitominas, 30 años después* izenekoetan —Buenos Airesen egin dira biak—.Film hauek egin ditu: *Los Faquires, Las Voces, Buenos Aires-Edén* eta *Utah*. Gaur egun, *El cuerpo de la mujer sin sombra* filma ari da egiten.

Videomaker y curadora independiente. Ha sido directora del Festival Internacional de Cortometrajes de Aguilar de Campo durante cinco años y curadora en diversas exposiciones (*This is Just to Say* y *Mitominas, 30 años después*, ambas Buenos Aires). Tras sus películas *Los faquires, Las voces, Buenos Aires-Edén*, y *Utah*, realiza actualmente *El cuerpo de la mujer sin sombra*.